Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4460

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko aginduarena: «Agindua, 2010eko uztailaren 27koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena; honen bidez, irabazi-asmorik gabeko elkarteei, osasun-arloko profesionalen elkargo ofizialei eta ikerketa sustatzeko unitateei euren jardunari eusteko eta langileen etengabeko prestakuntzarako jarduerak antolatzeko eman beharreko laguntzetarako deialdia egiten da».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak aurkitu dira Osasun eta Kontsumoko sailburuak 2010eko uztailaren 27an emandako Aginduan (2010eko irailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 176. zk.). Aginduaren bidez irabazi-asmorik gabeko elkarteei, osasun-arloko profesionalen elkargo ofizialei eta ikerketa sustatzeko unitateei euren jardunari eusteko eta langileen etengabeko prestakuntzarako jarduerak antolatzeko eman beharreko laguntzetarako deialdia egin zen. Hori dela eta, zuzenketa hau egingo da:

2010/4186 (4/43) orrialdean, 7. artikuluan, «Eskaerak aurkezteko epea eta lekua»n, 1. paragrafoan,

Honako hau dioen tokian:

Eskaerak eta horiei gaineratu beharreko gainerako dokumentazioa (dagokion kapituluan laguntza-modalitate bakoitzerako adierazitakoa) aurkezteko epea Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2010eko irailaren 13an amaituko da.

Hau esan behar du:

Eskaerak eta horiei gaineratu beharreko gainerako dokumentazioa (dagokion kapituluan laguntza-modalitate bakoitzerako adierazitakoa) aurkezteko epea Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2010eko urriaren 13an amaituko da.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

4460

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Orden de 27 de julio de 2010, del Consejero de Sanidad y Consumo, por la que se convocan ayudas a Asociaciones de Profesionales de la Salud sin Ánimo de Lucro, Colegios oficiales de Profesionales en Salud y Unidades de Apoyo a la Investigación, para su funcionamiento, organización de actividades de formación continua del personal, incluyendo tecnologías de la información y la comunicación.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la Orden de 27 de julio de 2010, del Consejero de Sanidad y Consumo, por la que se convocan ayudas a Asociaciones de Profesionales de la Salud sin Ánimo de Lucro, Colegios oficiales de Profesionales en Salud y Unidades de Apoyo a la Investigación, para su funcionamiento, organización de actividades de formación continua del personal, incluyendo tecnologías de la información y la comunicación, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n..º 176, de 13 de septiembre de 2010, se procede a su corrección:

En la página 2010/4186 (4/43), artículo 7 «Plazo y lugar de presentación de las solicitudes», punto 1,

Donde dice:

«El plazo de presentación de solicitudes y de la restante documentación que deberá acompañarla y que se indica para cada modalidad de ayuda en el capítulo correspondiente, se iniciará al día siguiente de la publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el 13 de septiembre de 2010».

Debe decir:

«El plazo de presentación de solicitudes y de la restante documentación que deberá acompañarla y que se indica para cada modalidad de ayuda en el capítulo correspondiente, se iniciará al día siguiente de la publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el 13 de octubre de 2010».